



**OROZKOKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE OROZKO  
(BIZKAIA)

**2014KO URRIREN 11N OSPATUTAKO ZALOA  
INGURUKO AUZO-BATZARRAREN AKTA**

AUZOTIK BERTARATUAK: 6 pertsona  
TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK: 4 pertsona

**GAIORDENA:**

**1.- AURREKO AKTA IRAKURTEA ETA  
ONERTUTEA**

10:00etan hasten da Zaloa eskualdeko Auzo-  
batzarra.

Ongietorria emoten jake etorritakoei eta  
aurreko batzarraren akta irakurri da, 2014ko  
apirilaren 5ari jagokona.

**2.- AUZOETAN BURUTUTAKO EKINTZAK ETA  
AURREIKUSITAKOAK**

Zonaldean azken hilabeteetan zehar  
burututako ekintzak komentatzen dira: teila  
arriskutsu batzuk kendu, errepidean  
irtenguneak/konkorrak jarri, ispilua aldatu  
eta araztegiaren ondoan zeuden "bolak"  
kendu dira.

Jarraian hurrengo hilabeteetarako  
aurreikusita dauden ekintzan komentatzen  
dira: errepide batzuen arraspatzea,  
Zabalekoko bidearen konponketa, Katadioko  
hormaren konponketa, Torrezarren hodi bat  
jarri, auzo-taxia.

Saneamenduak aurten ezin izango dira egin,  
baina behar bada hurrengo urtean egingo  
dira.

**ACTA DE LA ASAMBLEA DE BARRIO DE LA  
ZONA DE ZALOA DEL 11 de OCTUBRE de  
2014**

ASISTENTES DEL BARRIO: 6 personas  
REPRESENTANTES DE LOS GRUPOS  
POLÍTICOS: 4 personas

**ORDEN DEL DÍA:**

**1.- PRESENTACIÓN Y LECTURA DEL ACTA  
ANTERIOR**

A las 10:00 h. da comienzo la asamblea de  
barrio de la zona de Zaloa.

Se da la bienvenida a los/as asistentes y se  
lee el acta de la anterior asamblea, la  
correspondiente al 5 de abril de 2014.

**2.- ACCIONES REALIZADAS HASTA LA FECHA  
Y PREVISTAS**

Se comentan las acciones realizadas en la  
zona durante los últimos meses: quitar las  
tejas que estaban peligrosas, poner resaltos  
en la carretera, cambiar el espejo y quitar las  
"bolas" que estaban al lado de la depuradora.

A continuación se comentan las cosas que  
están previstas para los próximos meses:  
raspado de algunas carreteras, arreglo de la  
carretera de Zabaleko, arreglo de una pared  
en Katadio, se va a colocar una tubería en  
Torrezar, taxi rural.

Los saneamientos no se podrán arreglar este  
año pero probablemente se harán el año que  
viene.



**OROZKOKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE OROZKO  
(BIZKAIA)

Putzu septikoa berriro txarto dagoela komentatzen da.

**3.- ZALOAKO JAIK**

Zaloako jaiak auzoan antolatzen ez diren bakarrak dira. Egokiena auzokoek euren gustuko jaiak antolatzea da.

Hurrengo auzo-batzarrean hitz egingo da honi buruz, 2015eko apirilean.

**4.- AUZO-TAXIA**

Froga-proiektu bat dala azaltzen da, 3 hilabeteko iraupena izango du eta astebete drama martxan.

Taxia eskatzeko aurreko egunean udaletxera deitu behar da, euro 1 balioko du eta helburua garraio publikorik ez dagoen eskualdeak kubritzea da.

Hilero 1.000 € inguruko kostua izango du.

Galdetzen dute ea ordutegia finkoa izango den. Momentuz tarte horiek mantenduko dira eta hiru hilabeteak pasatu ostean aztertuko da aldaketarik egin behar den.

**5.- EGURRA ATERATZEKO ORDENANTZA**

Ordenantza hau eguneratzeko bilera bat egingo dela informatzen da.

Auzoetako-batzarren txanda itxoitzen egon gara bertan jendeari informazioa eman ahal izateko.

Bilera hau seguruenik azaroan izango da (litekeena da bariku arratsalde batean

Se comenta que el pozo séptico está mal otra vez.

**3.- ZALOAKO JAIK**

Las fiestas de Zalao son las únicas que no se organizan en el barrio. La idea es que la gente del barrio organice sus fiestas a su gusto.

Se decide tratar este tema en la próxima asamblea, la de abril de 2015.

**4.- TAXI RURAL**

Se explica que es un proyecto piloto, que tendrá 3 meses de duración y que lleva en marcha una semana.

Es necesario llamar al ayuntamiento el día anterior para solicitarlo, el coste será de 1 € y su objetivo es cubrir las zonas en las que no existe transporte público.

Está estimado un coste de 1.000 € al mes.

Preguntan si el horario será fijo y se comenta que de momento se respetarán las franjas horarias establecidas. Una vez pasados los 3 meses ya se verá si se cambian.

**5.- ORDENANZA DE SACA DE MADERA**

Se informa de que se va a hacer una reunión para actualizar esta ordenanza.

Se ha estado esperando a que pasara la ronda de asambleas para poder informar a la gente en estas.

Probablemente la reunión se celebrará en noviembre (posiblemente un viernes a la



**OROZKOKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE OROZKO  
(BIZKAIA)

izatea).

**6.- 2015EKO AURREKONTUETARAKO PRPOSAMENAK**

Eliza ostean dauden bi arketak eta beste hiru araztegirako bidean.

Araztegiara doan bideko arekak garbitu behar dira, batzuetan sastrakak garbitzean bertan geratzen direlako.

Errepideko puntu batzuetan ura gainetik pasatzen da.

Zaloara igotzeko errepideko leku batzuetan bazter-babesak jartzeko eskatzen dute, leku ilunak eta aldapadunak dira eta errepidea izozten denean laban egiten du.

Errepidean partxe batzuk jarri zirela komentatzen da, baina berriro daude zuloak. Errepidean eta auzo osoan asfalto geruza bat eskatzen dute.

**7. ESANDAKOAK**

Zaloako ermitako erreteila nork konpondu behar duen informatzeko eskatzen dute.

tarde).

**6.- PROPUESTAS PARA PRESUPUESTOS DE 2015**

Las dos arquetas de detrás de la iglesia y otras tres de camino a la depuradora.

Hay que limpiar las cunetas del camino a la depuradora, comentan que a veces después del desbroce el forraje va a la cuneta.

Hay unos puntos de la carretera en los que el agua pasa por encima.

Solicitan colocar “quitamiedos” en algunos puntos de la carretera de acceso al barrio de Zalao, porque son zonas sombrías y con cuesta en las que la carretera se suele congelar y resbala.

También se comenta que se pusieron algunos parches en la carretera y que otra vez hay agujeros. Solicitan una capa de asfalto en toda la carretera y en todo el barrio.

**7. COMENTARIOS**

Comentan que hay que consultar a ver quién debe arreglar el retejo de la ermita de Zalao.